

## Azkue Fundazioak “Digitalizazioaren Hariak” egitasmoa abiatuko du Bermeoko ikastetxeetan

- Bermeoko hiru ikastetxeetako (Eleizalde Ikastola, Sagrado Corazón eta I. Arozena B. Barrueta BHI) DBH 4. eta Batxilergo 1. mailetakako ikasleek parte hartuko dute proiektuan.
- Guztira, 200 ikasle inguru izango dira: Eleizalde Ikastola (45 ikasle), Sagrado Corazón (38 ikasle) eta I. Arozena B. Barrueta BHI (112 ikasle)
- Egitasmoaren xedea da digitalizazioak gazteen arteko harremanetan nola eragiten duen hausnartzea eta gazteek gaitasun digital kritikoa garatzea.
- Gogoeta prozesu hori ikastetxeetan egingo dituzten jarduera/proiektu praktikoen bidez egingo da, urrian eta azaroan.
- Horretarako Azkue Fundazioak hainbat baliabide eskainiko ditu, hala humanoak nola materialak.
- Prozesuan lortutako azken emaitzak ikastetxe guztietako ikasleen artean ezagutaraziko dira abenduan, eta sareko gordailu batean bilduko dira partekatzeko asmoz.
- Ekimena Bermeoko Udalarekin lankidetzan garatu da.

## Helburuak:

**Xede nagusia:** Digitalizazioak gazteen arteko harremanetan nola eragiten duen hausnartzea.

Helburu horri lotuta dauden zenbait galdera zehaztu ditugu, hausnarketa horretan sakontzeko edo hausnarketa bera bideratzeko:

- Nortzuk ari dira geratzen digitalizazio prozesuen bazterretan?
  - Automatizazioaren ondorioak, hizkuntza gutxituak nora, lanaren etorkizuna, nork egiten du Internet... Generoa, migrazioa... ikuspuntuak lantzeko asmoz.
- Teknologia bixitza errazten digu?
  - Zer hobetzen du eta zeri egiten dio kalte? Erosotasunaren edo erraztearen ordaina zein da?
- Zein da emozioen eta gure digitalizazio ereduaren arteko harremana?
  - Arretaren ekonomia: erabiltzen ditugun zenbait zerbitzuek nola lortzen dute gure arreta mantentzea gure emozioez baliatuz eta zein eragin izan dezake horrek gure bizitzetan.
- Non geratzen da gorputza?
  - Zertarako behar dugu gorputza, non kokatzen da gure gorputza eremu digitala bitartekoa denean?
- Non nago Interneten nagoenean?
  - STEAM, azpiegiturak ulertzeko moduak, Interneteko eredu alternatiboen ikerketa,...
- Nola nago Interneten nagoenean?
  - Bullying-a, albiste faltsuak, adikzioak... jokabideak lantzeko asmoz.

## Horretarako...

Ikastetxeetan, ikasleek proiektuak garatuko dituzte urrian eta azaroan: **Euskara eta digitalizazio prozesuak ardatz dituzten proiektuak.**

- Ikastetxean eta/edo gazteen artean gertatzen diren digitalizazioari lotutako harremanen gainean hausnartzeko.
- Prozesuaren emaitza gazteek sortua eta gazteentzat izan beharko da.

## Ikastetxeen egitasmoak:

- Sagrado Corazón: “First Lego League lehiaketarako prestatzen dugun proiektu zientifikoan, garraioak landuko ditugu”. Horretarako, besteak beste, “Euskoin” izeneko txanponak diseinatuko dituzte 3Dn, bai eta robot bat ere, “robotaren jolasa” egiteko.
- Eleizalde Ikastola: “Mahai jolas desberdinak diseinatzea eta 3Dn inprimatzea”
- Arozena B. Barrueta BHI: “Salbu egon, Zyber Delikuentzia”, Telebistako *Comando Actualidad* saioaren formatuko bideoa egitea ziberdelinkuentziaren inguruan.

## Lantegiak eta hizlariak:

- Ikastetxeetako proiektuak garatzeko lantegiak, prestakuntza-saioak eta adituen hitzaldiak antolatuko dira.
  - **Sagrado Corazón:** Euskaraz dagoen material bilduma lortzea, eta aditu baten hitzaldia.
  - **Eleizalde Ikastola:**
    - Alaiondo Estudioaren eskutik, jokoan dinamikak aztertu eta diseinatuko dituzte.
    - 3D inprimagailu bat eta tresneria gerturatuko ditugu ikastetxera eta 3Dn diseinu eta fabrikazio digitalaren inguruan lantegiak landuko ditugu.
  - **Arozena B. Barrueta BHI:** Zibersegurtasuneko adituekin topaketa izango dute ikasleek, informazioa gertutik jasotzeko. Horrekin batera, zinema zuzendari bat hurbilduko da Institutura gidoiaren lanetan laguntzeko eta bideo edizioari buruzko prestakuntza jasotzeko.

## Proiektuen emaitzen aurkezpena:

- Behin proiektuak amaituta, emaitzak ikastetxeen artean aurkeztuko dira, hiru ikastetxetako ikasleek egitasmo guztien berri izan dezaten eta proiektu horietatik atera diren emaitzak ezagutu ditzaten (zehazteke dago nola gauzatuko den aurkezpen hori).
- Emaitzok, sareko gordailu batean bilduko dira, Creative Commons lizentziapean, partekatzeko asmoz. Hala, guztion esku egongo dira.

## Harremanetarako:

- Julen Azpitarte Azkue Fundazioko komunikazio teknikaria
- E-posta: [julen.azpitarte@bizkaia.eus](mailto:julen.azpitarte@bizkaia.eus) Tel.: 94 402 80 81



